

Idoia Sanchez ipuin kontari bihar Ikaztegieta eta Baliarrainen

BALIARRAIN IKAZTEGIETA. DV. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, bihar arratsaldean Idoia Sanchez ipuinak kontatzen ibiliko da Ikaztegieta eta Baliarrainen. Ikaztegieta liburutegian 17:00etan jarria du hitzordua, eta Baliarraingoan, berriz, 18:30etan.

Ia bost urte daramatza tolosar honek ipuin kontaketa saioak eskaintzen, baina berak aipatu bezala, saioetatik aparte ia bizitza osoa daramat ipuinak kontatzen.

Emanaldi dexente eskaintzen ditu Idoiak urtean zehar, baina azken urtean adina, sekula ez. Bera bakarrik ibiltzen da batetik bestera ipuinak kontatzen eta saioak ere berak bakarrik prestatzen ditu; horretarako, ipuin asko irakurri behar omen dira. Ipuinak irakurri, ipuin asko irakurri. Irakurtzen zoazen heinean begiratu behar da ea ipuinak ezer bitxirik ba ote duen, mezuren bat transmititzen ote duen, umeak entretenitzeko beharrezko osagirik ba ote duen... Noski, hau dena ipuina kontatu behar diezun umeen adina kontutan hartuz erabaki behar da, adina bat edo bestea izan, umeek gauza ezberdinak eskatzen baitizkizute.

Dena den, nahiz eta ipuinak prestatuta eraman, saio irekiak egiten ditu Idoiak. Emanaldi irekiak egiten ditut. Etortzen den ume kopuruak, hauen adinak, sortzen den giroak,...faktore horiek guztiek eragin handia dute saioak hartuko duen norabidean". Horregatik, Idoiak ezaugarri guzti horiek kontutan hartuta, ipuin batzuk edo besteak kontatuko ditu eta ondorioz, saioa modu batera edo bestera aterako zaio.

Aktore lana baliagarri

Idoia Sanchez aktorea da eta berak azaldu bezala, aktore lanak erakutsi didan guztia erabiltzen dut ipuin kontaketa, asko balio baitu horretarako. Baina bere iritziz, ipuin kontalari batek ez du zertan aktore izan. Gerta liteke, eta gertatzen da, aktore ez den batek komunikatzeko eta emozioak transmititzeko sekulako ahalmen eta gaitasuna izatea eta azken finean, hori da ipuin kontalari batek behar duena, komunikatzeko eta transmititzeko gaitasuna. Etxean dugu adibidea, amona eta ama asko, aktore izan gabe sekulako ipuin kontalariak dira. Idoiarentzat, lan honen alderik zailena bidea irekitzea da, norberaren burua ezagutzera ematea, alegia. "Behin hori lortuz gero, niretzat behintzat, lan hau zoragarria da. Asko disfrutatzen dut ipuinak kontatzen".

Beraz, Idoiaren ipuinak entzun nahi dituzten haur eta gaztetxoek Ikaztegieta eta Baliarraingo liburutegietan izango dute horretarako aukera bihar arratsaldean.